





# Ekintza proposamena Azaroak 25



EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

## A25 Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Urtero bezala azaroaren 25ean herriko biztanleak, elkarteak eta erakunde publikoak deituta gaude emakumeen kontrako indarkeriaren aurka antolatzen diren ekintzetan parte hartzera. Aspalditik ikastetxeok egun berezi honetan parte hartu duzue. Aurten, ikastetxeoi proposamen berria eskaini nahi dizuegu zuen parte hartzea aktiboa izan dadin. Asmoa da ikasgeletan irakasleek eta ikasleek indarkeria mota hori aurrezaintzeko gai hauxe lantzea: hezkidetza. Jarraian agertzen den webgunean gaiari buruz landutakoa, bitartekoak eta azaroaren 25eko jarduerari buruzko informazio osoa izango duzue eskuragarri: <http://hezkidetza.aisialdisarea.org>



### Proposamena:

Ikastetxeetan landu duzuen jaitsi ahal izango duzue mundu guztiari erakusteko; proiektuan parte hartzeko denborarik izan ez baduzue lasai egon, zuek ere ongietorriak zarete.

12:00etan Solar plazan bilduko gara partaide guztiok. Bertan Trukeme erraldoi bat egongo da lurrean markatuta. Jolas honen irudiak haur eta gazteen eta prebentzio lanen arteko lotura irudikatu nahi du. Bi gauza egingo dituzte ikastetxe bakoitzeko partaideek:

1. Trukemetik pasako dira geletan proiektua egiteko orduan landutakoarekin. Proiektua landu ez duten ikastetxeek emakumeenganako indakeria saihesteko jarrerak edo ideiak aurkeztu ahal

Laguntzailea // Colabora



Berdintasunaren Batzorde Misto  
Comisión Mixta de Igualdad

Gizarte Ongizatea  
Bienestar Social



Ayuntamiento de  
Portugaleteko Udala



izango dituzte edota gai horri dagozkion konpromisoak: kartel batean, pankarta batean edo nahi duten euskarrian. Hau guztia TRUKEMEren amaieran egongo diren soketan eskegiko dute, edonork ikus dezan.

2.- Aldi berean, ikastetxe bakoitzeko bi ordezkari mikrofonetik gelan landu edota hartu nahi dituzten konpromisoak irakurriko dituzte, klasekideak trukemetik pasatzen diren bitartean. 3-4 paragrafo, 1-2 minututan.

Amaitzeko, antolatzaileek ezarriko duten gunere batera pasako zarete gelaz gela eta mosaiko erraldoi bat osatuko dugu.

Ikastetxeek parte hartu eta gero, bada arlo publikoa indarkeria matxistaren aurkako borrokan konpromiso irmoak adierazteko. Hortaz, Berdintasunaren Batzorde Mistoan, nahi duenarekin batera trukemetik pasako da bere konpromisoa erakusteko. Bitartean, bai ikastetxe bakoitzean izendatutako ikasleek bai talde politikoetako bozeramaileek Batzorde mistoan adostu zen adierazpen instituzionala irakurriko dute.

Amaitzeko, jardueran parte hartu dugun guztiok familia argazkia egingo dugu mosaiko erraldoi eta trukemearekin batera.

## GARRANTZITSUA!

Ekintza ondo antolatzeko zuen erantzuna behar dugu **azaroaren 18a baino lehen**, hau da, zenbat gelak eta pertsonak parte hartuko duten:

**Gizarte Ongizate Saila: 94472912 – [mujer@portugalete.org](mailto:mujer@portugalete.org)**

**Portugaleteko Aisialdi Sarea: 663086632 – [emakumea@aisialdisarea.org](mailto:emakumea@aisialdisarea.org)**

**Zalantzarik edo iradokizunik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan.**

Laguntzailea // Colabora



*Berdintasunaren Batzorde Mistoan*  
*Comisión Mixta de Igualdad*

Gizarte Ongizatea  
Bienestar Social



Ayuntamiento de  
Portugaleteko Udala

